

AZKOITIAKO ONDASUN HIGIEZIN HIRITARREN LURZORUAREN ETA ERAIKINEN BALIO PONENTZIAREN ALDAKETA

SARRERA

2001eko abuztuaren 28an udalerriko Balio Ponentzia onartu zuen Diputatu Kontseiluak. Ponentzian oinarrituta, ondasun higiezin hiritarren balio katastralak lortu ziren, eta 2002ko urtarrilaren 1ean jarri ziren indarrean. Balio katastral berriak 2002ko urtarrilaren 1ean jarri ziren indarrean.

Uztailaren 5eko 12/1989 Foru Arauak 12. artikuluan jasotzen duenez, Gipuzkoako Foru Aldundiak aldatuko ditu balio katastralak, ofizioz edo Udalak eskatuta, beti ere hirigintza antolamenduak edo beste edozein zirkunstantziak agerian uzten badu diferentzia nabarmenak daudela, alde batetik, balio katastral horien eta, bestetik, udalerrian nahiz bertako zonaren batean edo batzuetan kokatzen diren ondasun higiezin merkatuko balioen artean.

Balio ponentzia onartu denez geroztik, aldaketak izan dira udalerriko hirigintza antolaketan; gainera, lurzoruaen izaerari eta, beraz, aldaketa horiekin lotutako ondasunen merkatuko balioari eragin diete aldaketa horiek.

Horregatik guztiagatik, Azkoitiako lurzoruaen eta ondasun higiezin hiritarren lurzoruaen eta eraikinen balio ponentzia aldatu da.

XEDEA

Uztailaren 5eko 12/1989 Foru Arauak, Ondasun Higiezin gaineko Zergari buruzkoak, 12. artikuluan xedatutakoaren arabera, udalerriko balio ponentzia aldatu da zirkunstantzia hauek direla medio:

1.- Aldaketak udalerriko hirigintza antolaketan:

- **Azkoitiko hiri antolamenduko arauen aldaketa, 43 HA, 44 HA, 53 HA eremuei eta saihebiderearen 2. faseko trazatuari dagokiona** (2003ko irailaren 23an Gipuzkoako Foru Aldundiko Diputatuen Kontseiluak behin-betiko onartua).
- **Azkoitiko hiri antolamenduko arauen aldaketa, 43 Umasoro HERRI dagokiona** (2004ko apirilaren 20an Gipuzkoako Foru Aldundiko Diputatuen Kontseiluak behin-betiko onartua).

- Azkoitiko hiri antolamenduko arauen aldaketa, Agarre-Basarte 60 alorrari dagokiona (2004ko apirilaren 6an Gipuzkoako Foru Aldundiko Diputatuen Kontseiluak behin-betiko onartua).

ALDAKETAK

Aipatu zirkunstantzien ondorioz, honela aldatuko da Balio Ponentzia:

1.- Hirilur luraren eta 401, 812 eta 862 zona katastralen mugak aldatzen dira, eta 863 zona katastral berria sortzen da.

2.- Sortutako zonak honako balioak izango ditu:

<u>Zona</u>	<u>Hirigintz. Klasif</u>	<u>(BEI)Balio Erag</u>	<u>(MP)Apark Moduloa</u>
863	HIRITARGAIA	180,30 €	6.010,12 €

I. ERANSKINA

Hirilurraren mugatze plano.

II. ERANSKINA

Zona katastralen plano.